



aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

EGAPE BHI DIGITALIZAZIOAREKIN AURRERA!!!



Año tras año en Egape BHI hemos ido avanzando en la digitalización. En el curso 2014-2015 conseguimos el Nivel Avanzado de Madurez TIC. En el curso 2016-2017 con el proyecto "Sare Hezkuntza Gelan" se inició la digitalización del proceso enseñanza-aprendizaje que acabará el próximo curso con la digitalización completa en todas las áreas de toda la etapa.

Este año las familias de 1º de ESO han adquirido el dispositivo propio, para ello han tenido ayudas y planes de financiación.

De este modo, Egape Ikastola BHI responde al Decreto Heziberri 2020: adquirir la COMPETENCIA DIGITAL.



Egape Ikastola BHIk duela urte batzuk erronka handi bati aurre egitea erabaki zuen (2009-2010 ikasturtean) Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) integrazioa eta erabilera bultzatzea.

Urtez urte gure Ikastolan erronka honek eskatutako koxkak gainditzen joan gara. 2014-2015 ikasturtean IKT Ereduko Maila Aurreratua lortu genuen. 2016-2017 ikasturtean ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren digitalizazioari hasiera eman genion "Sare Hezkuntza Gelan" proiektuan parte hartuz, horretarako irakasleen etengabeko prestakuntza eta jarrera irekia ezinbestekoa izanik. Ikasturte horretan hainbat arlo digitalki lantzen hasi ginen eta gaur egun, DBH 1. 2. eta 3. mailak erabat digitalki lantzera iritsi gara. Datorren ikasturtean DBH osoan erabateko digitalizazioa lortuko dugu.

Aurten, DBH 1.mailako familiek Chromebook propioak erosи behar izan dituzte eta horretarako laguntza eta finantziazo aukerak eskaini zaizkie.

Modu honetara, Egape Ikastola BHIn bat egiten dugu Heziberri 2020ren bitartez Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumak eskatzen duenarekin: KONPETENTZIA DIGITALA eskuratzea.



FAMILIAK IKASTOLAN

Egape Ikastolako Hezkuntza Proiektuan horrelako adierazpenak egiten ditugu: "Zeregin honetan (ikasleen hezkuntzan) ikastolaz gain, bestebiera gilenagusiukosten ditugu: familia eta giza erakundeak..." Aurrerago "Gelako eta ikastolako jarduera desberdinietan familia guztien partaidetzat eta lankidetza, ere, sustatuko dugu". Horren harira garbi daukagu elkarlanerako eta elkar ulertzeko esparruak irekitzea ezinbestekoa dela haurrek lasaitasunez eta zoruntasunez ikasi ahal izateko bai familian eta baita eskolan ere. Gure ustez familiak eta ikastola aliatuak (konplizeak) izan behar dute haurren heziketan. Zenbait adituk diotenez familiaren presentzia eskolan faktore esanguratsua da haien arrakasta akademikoan. Horretan sinesten dugulako batzuetan gure geletara eta, besteetan, ikasleak familiengana hurbilduz elkarrekin ikasi, ondo pasa eta jakinduria partekatzen dugu.

LA FAMILIA EN LA IKASTOLA

Tal como se afirma en el proyecto Educativo de Egape Ikastola: "En esta tarea (la de educar a los alumnos) además de la ikastola los agentes principales son la familia y las instituciones". Más adelante "Promoveremos la participación y cooperación con todas las familias en las distintas actividades que se organicen en la Ikastola". Tenemos muy claro que debemos buscar espacios de trabajo conjunto y entendimiento con nuestras familias para que nuestros alumnos tengan éxito. Debemos ser aliados, cómplices, en la educación de los alumnos. Muchos expertos afirman que la presencia de las familias en la escuela es un factor clave en el éxito académico de sus hijos. Porque creemos en ello, unas veces en las propias aulas y otras acercándonos donde estén las familias aprendemos juntos, disfrutamos y compartimos conocimientos.





INGELES HIZKUNTZA LAGUNTZAILEA

Azken hiru ikasturteetan Egape BHIn ingeles hizkuntza laguntzailea izan dugu. Honek arloa ingelesez lantzen duten irakasleei laguntza ematen die ikasleen ahozko trebetasunak indartzeko. Bestalde, gure ikasleek aukera dute tokiko ingelesa duen pertsona baten kultura eta ohitura gertutik ezagutzeko.

Aurtengo ikasturtean Keith Kuslak hizkuntza laguntzailea dugu gure artean, Atlantatik (AEB) etorritakoa. Ikasleek aukera ezin hobea dute ama hizkuntza ingelesa duen laguntzailea entzuteko eta berarekin ingelesa praktikatzeko. Gainera, Keithek esaten diena ulertu behar dute, azentua eta doinua barneratuz. Honek ingeles hutsean hitz egiten die ikasleei eta ondo ulertzeko hainbat estrategiaz baliatzen da: esandakoa errepikatuz, gorputz mintzairaz erabiliz, irudiak eta laguntza bisualaren bidez...

Ikasleek galde diezaiokete bere herrialdea, hiria, ohitura eta zaletasunei buruz, haren kulturaren berri jasoaz. Eta era berean, aukera paregabea dute gure kulturaren berri Keithi ingelesez emateko.

AUXILIAR DE CONVERSACIÓN EN INGLÉS

Los últimos tres años hemos contado con auxiliares de conversación en lengua inglesa. Además de reforzar la expresión oral en inglés, se les ofrece la oportunidad de conocer de cerca la cultura y costumbres de este profesorado nativo.

Este año está con nosotros/as el lector o auxiliar de conversación Keith Kuslak, procedente de Atlanta (EEUU). Para el alumnado es una gran oportunidad contar con el apoyo de este lector ya que además de practicar la lengua inglesa con este nativo, deben comprender los mensajes con un acento y tono al que no están habituados/as. Para que el alumnado comprenda los mensajes, Keith utiliza diferentes estrategias como la repetición, uso de la expresión corporal, ayuda de imágenes visuales,...

Además, el alumnado tiene la oportunidad de preguntarle y obtener información de primera mano sobre su país, su ciudad, sus costumbres y sus aficiones. Así mismo, es una oportunidad inmejorable para que el alumnado hable en inglés con Keith sobre nuestra cultura.





INAUTERIAK

